

En Tol Sarmiento edo ETS (2005, lekora, Araba). Musika ibilbidea disko disko osatu dute. Dena den, "Vendimia seleccionada" (auto-ekoizpena, 2008) estreinako disko-maketa argitaratu aurretik kantuak egitea eta herriz herri jotzea zen helburua. Gerora ere dinamika berberarekin segitu dute, kantuak sortu, diskora ekarri eta plazaratu zuzenean hainbat herrietan. Halako batean, ETS taldeak begiratu du atzera eta ohartu da urteak daramatzatela taula gainean. Bosgarren diskoari (disko-maketa barne) gorazarre egiteko garaia zela pentsatu dute, taldeari berari gorazarre eginda taldetik bertatik. En Tol Sarmiento taldeak bosgarren diskoan lortu du klimax batera ailegatzea, ametsetan pentsatutakoa eta gertatutakoa errealitatean ikusi nahi izan dute. Kantu biribilek behin eta berriro prestatu euren kontzerturik gogokoena jotzeko. Emaitzak hiru zati ditu: zuzenekoaren audioa (CD-a), zuzenekoaren bideoa (DVD-a) eta taldeari buruzko 60 minutuko dokumentala.

En Tol Sarmiento taldeak disko disko eta abestiz abesti entzule gaztea gatibatze-ko indarra izan du. Xume hasi ziren, xume iraun dute, xumetasunaren politika ez da itxura, ETS taldeak xumetasunetik atera baitu brain arte dena. Ametsaren bidea eraiki dute hankak lurtean jarrita. Ametsetan diskoa festaren festa da, disko zintzoa, eta taldeari buruzko dokumentala ikusteko erraza eta atsegina da. Zergatik? ETS atseginak direlako eta bada-

kitelako bidea modu horretara eraiki behar dela. Ez dira soilik erreferente Arabako Errioxan, Euskal Herria konbentzitu dute kantuekin. Bada hori baino amets politikorik? Agian...

En Tol Sarmiento taldearen "Ametsetan" diskoa 2017ko abuztuaren 6an grabatu da, Gasteizko Foru Plazan. Laguntzaile anitz izan ditu. Jony Kaotiko, ahotsa "En la grada" abestian. Iñaki Betagarri, ahotsa "Igel egosiaren sindromea" abestian. Pello Vendetta, ahotsa "Sexuarekin" kantuan. Ane Urruzola eta Iker Sanz, dantzak "Aurkitu genituen" abestian. Judizmendiko Zarpantzarrek ikuskizunari erasiera eman zioten.

Zuzenekoaren audioa. Grabaketa Javi San Martinek eta Sabin Kareagak egin dute. Audio nahasketak eta masterizazioa Javi San Martinek egin ditu Sonido XXI estudioan (Galar, Nafarroa).

Zuzenekoaren irudiak. Kamera operadoreak: Alberto Catenacci, Iban Zunzunegi, Andoni Mendizabal, Jon Mitxelorena, Aritz Lazkano, Aitor Bereziartua, Lander Etxedona, Aitor Baztarrika. Muntaiak: Andoni Mendizabal eta Lander Etxedona.

Dokumentala. Pisolabis ekoiztetxeak egin du. Lander Etxadona eta Aritz Lazkano dira egileak. Bigarren kamara: Andoni Mendizabal. Audio postprodukzioa: Iñigo Etxarri. Dokumentalean parte hartu dute: Maitane, Arnaiz, Sara Tejedor, Andoni Landa, Iñaki Ortiz de Villalba, Iñigo Txapelunk, Andoni Bonafau, Antonio Menea, Dan Díez, Javi San Martín, Iñigo Viñuña, Arkaitz Hormaetxe, Iker Aginaga, David Vazquez (Peti), Juantxo Martínez.

AMETSETAN EN TOL SARMIENTO

ETS TALDEAK DIO

AMETSETAN, PROIEKTUA

"Ametsetan", errealitate bihurtu den En Tol Sarmiento taldearen ametsa da. Hamabi urte gelditu gabe egon eta gero, atzera begira, hausnartu eta gure aurpegirik naturalena erakusteko garaia heldu zitzaigula pentsatu genuen.

Zorionekoak sentitzen gara taldeak bizi duen momentuagatik, eta horregatik, energia hori islatu nahi izan dugu hurrengo proiektuarekin. Ametsetan lan desberdina da, sakona, taldearen funtsa maila guztietan erakusten duena. Proiektua bi zatitan banatuta dago, errealitate eta amets bera osatzen dituztenak. Alde batetik, ETSren zuzeneko eta estetika, taldearen bizitzaren inguruko dokumentala. Aurkezpen modura, izen bera duen eta gure ibilbidea azalduko duen abesti berri bat ere sortu dugu, betiko freskotasuna mantenduz.

ZUZENEKOA

Arrazoi askorengatik, ETS zuzeneko taldea dela betidanik defendatu dugu. Ez bakarrik hobeto moldatzen garen esparrua delako, baizik eta publiko zabal batekin konektatzeko aukera izan dugulako. Horregatik, 2017ko Gasteizko jaieran Foru plazan grabatutako kontzertuan, azken urteetan bizi izandako eta ikasitako guztia islatzen saiatu gara. Zuzenekoetan ezinbestekoak ditugun bi zatiak, musika eta ikuskizuna, proiektu honetan ere formatu desberdinetan banatu ditugu.

Alde batetik, azken hiru diskoetako abestirik onenak biltzen dituen audio diskoa, taldearen gaurko zuzeneko soinuarekin. Beste alde batetik, astebururo publikoaren aurrean askatzen dugun energia erakusten duen DVD-a, Gasteizko kontzertuan ere grabatuta. Beti bezala, jendearen emozioetara hurbiltzen saiatzen den musika eta argi espektakulua izango da. Irribarrea, dantza, eta azken finean, zoriona bilatzen ditugu saio bakoitzean.

Hau gutxi ez balitz, gure musikan eragina izan duten abeslari ospetsuen laguntza izan genuen egun horretarako, gure ametsen gauerako, alegia. Kolaborazio guztiak (Pello Reparaz, Iñaki Ortiz de Villalba, Jony Kaotiko, Iker Sanz, Ane Urruzola eta Judizmendiko Zarpantzarrek) guk inoiz eskainitako emanaldirik onena biribildu zuten.

DOKUMENTALA

Taldearen eta musikarien berezitasunak kontuan hartuta, En Tol Sarmientoren atzean dagoenaren benetako istorioa kontatzea pentsatu genuen. Urte baten jarraipena egin eta gero, Ametsetan, ETSren bizitza deskribatzen duen filma da, musikari bakoitzaren esparru pertsonalean sakonduz. Alde positiboa eta negatiboa kontatu nahi izan ditugu, musikaren munduko ikuspegi orokorra izatea garrantzitsua baita guretzat. Taldeko partaideen eta hurbilekoen elkarriketak tarteko, gure ingurua azaltzen saiatzen gara; hots, diskoek eta zuzenekoek kontatu ezin dutena.

Hori dela eta, En Tol Sarmiento taldearen gizatasuna nabarmentzen duen dokumentala da, gure ustez hori delako indartzen gaituena. Gure eguneroko bizitzak, gure ogibideak musikatik kanpo eta bizitza bakoitzaren zailtasunak azalduko ditugu. Bada, guzti hori aberasteko, barneko eta kanpoko ikuspuntuak eta hausnarketak agertuko dira.

Bestalde, hamabi urteko historia, konposizio prozesuak eta talderen eboluzioa ere azalduko ditugu. Arabako Errioxa beti oinarri, bidean izan ditugun zailtasunak argituko ditugu, eta taldeak izan duen euskararekiko eboluzioa ere kontatuko dugu.

Azken finean, hamarkada bat baino gehiagoko ziklo bat itxiko dugu, gure ametsi puntu eta jarrai bat emateko.

Iñigo Etxezarreta: ahotsa eta gitarrak

Rubén Campinún: baxua eta koruak

Floren Díaz: bateria

Rubén Terreros: tronpeta

Javier Lucas: tronboia



Tel: 618 072 076-26 / www.baga-biga.eu / info@baga-biga.eu
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

ritxi aizpuru + en tol sarmiento (2017ko azaroaren 28a)